



## Merkataritza eta ibilgailuen konponketa sektoreko afiliatuak Euskal A.E. 2018 - 2021



Informazio iturria: Guk landutako datuak, Gizarte Segurantzako datuetan oinarrituta. Datuak hilabeteko azken egunari dagozkie.

2021ko laugarren hiruhilekoan, handizkako eta txikizkako merkataritza sektorean; ibilgailu motordunen eta motozikleten salmenta eta konponketa, 135.384 afiliatu zeuden guztira Gizarte Segurantzaren laneko alta emanda. EAEko ekonomia osoari dagokionez, lan-altan dauden afiliatuen % 13,9 dira. Hiruhilekoko batez besteko afiliatuen kopuruaren urtetik urterako aldakuntza -% 0,05 izan da (2021ko 4. hiruhilekoa, 2020ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta).

Merkataritzaren sektoreak EAEko ekonomia baino portaera okerragoa izan zuen; izan ere, ekonomia osoaren jardura kontutan izanda, afiliazioak 955.425 izatetik 974.289 izatera igaro ziren aldi horretan, eta urte arteko tasan % 2,0 handitu zen.




Informazio iturria: Guk landutako datuak, Gizarte Segurantzako datuetan oinarrituta. Datuak hilabeteko azken egunari dagozkio

**Merkataritza sektoreko afiliatuak, azpisektoreen arabera**


- Ibilgailu motordunen eta motozikleten salmenta eta konponketa
- Handizkako merkataritza eta merkataritzako bitartekariak, ibilgailu motordunak eta motozikletak izan ezik
- Txikizkako merkataritza, ibilgailu motordunena eta motozikletena izan ezik

Horien guztien artean, langile gehienei lana ematen diena txikizkako merkataritza da, afiliatuen % 61,0 biltzen baititu.

Afiliazioen banaketa ehunekotan  
2021ko 4. hiruhilekoa



Urte arteko aldakuntza afiliazioaren kopuru absolutuetan  
2021ko 4. hiruhilekoa, 2020ko aldi berarekin alderatuta




Merkataritzaren eta konponketaren sektoreko afiliazioak, kopuru absolutuetan, 64 afiliatu gutxiago izan zituen, 2020ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Txikizkako merkataritzak hazkundera izan du (102); ondoren, handizkako merkataritzak (82) eta ibilgailuen salmentak eta konponketak (-249) afiliatu gutxiago.

2021ko laugarren hiruhilekoan, enpleguak merkataritzan izandako urte arteko aldakuntza-tasa % -0,05 izan zen. Datuak bereizita aztertuta, ibilgailuen salmenta eta konponketa sektorea % 1,9 jaitsi zen, handizkako merkataritza %0,2 handitu zen, eta azkenik, txikizkako merkataritza %0,1 handitu egin zen.


Merkataritza eta ibilgailuen konponketa sektorean, bere osotasunean hartuta, enpleguak gora egin zuen soldatapekoen taldean (% 0,2) eta autonomoen taldean behera egin zuen (-% 0,7).

### Txikizkako merkataritzaren sektoreko afiliatuak, lurralde historikoen arabera

Txikizkako merkataritzaren banaketa, ehunekotan, lurralde historikoen arabera 2021ko 4. hiruhilekoa



Urte arteko aldakuntza afiliazioaren kopuru absolutuetan 2021ko 4. hiruhilekoa, 2020ko aldi berarekin alderatuta



### Afiliazioen beherakada erregistratu da 3 lurralde historikoetan

Lurralde Historikoen arabeko afiliazioen banaketari dagokionez, Araba afiliazioen % 13,6 da, Bizkaia % 56,8 eta Gipuzkoa % 29,6.

Bizkaian, txikizkako merkataritzan lan egiten duten pertsonen % 39,3 autonomoak dira, Gipuzkoan % 29,4a eta Araban % 22,6a.

Bizkaian urte arteko aldaketa positiboak izan ditu afiliazioari dagokionez: 550 afiliazio gehiago; Gipuzkoan berriz, -424 afiliazio gutxiago; eta Araban, -24 gutxiago.

Aurreko urteko hiruhileko berarekin konparatuta, enplegu-irabazien ehunekoei dagokienez, Bizkaian %1,2ko igoera izan zen, Gipuzkoan -%1,7 jaitsi zen, eta azkenik, Araban -%0,2 jaitsi zen.

## ERANSKIN ESTATISTIKOA

EUSKAL A.E. C.A. de EUSKADI	Datu absolutuak / Datos Absolutos			Δ 4T 2021/ 4T 2020		
	Afiliatuak	Soldatakoak	Autonomoak	Afiliatuak	Soldatakoak	Autonomoak
	Afiliados	Asalariados	Autonomos	Afiliados	Asalariados	Autonomos
VENTA Y REPARACIÓN DE VEHÍCULOS DE MOTOR Y MOTOCICLETAS	12.789	9.683	3.106	-1,9	-2,0	-1,7
COMERCIO AL POR MAYOR E INTERMEDIARIOS DEL COMERCIO, EXCEPTO DE VEHÍCULOS DE MOTOR Y MOTOCICLETAS	39.849	32.043	7.806	0,2	0,7	-1,8
COMERCIO AL POR MENOR, EXCEPTO DE VEHÍCULOS DE MOTOR Y MOTOCICLETAS	82.746	54.515	28.231	0,1	0,3	-0,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>135.384</b>	<b>96.241</b>	<b>39.142</b>	<b>-0,05</b>	<b>0,2</b>	<b>-0,7</b>
<b>TOTAL</b>						
<b>EKONOMIA GUZTIRA</b>						
<b>Total ECONOMÍA</b>	974.289	804.566	169.723	2,0	2,4	0,0
<b>13,8956374</b>	<b>% bertikalak %verticales</b>			<b>% horizontalak % horizontales</b>		
	Afiliatuak	Soldatakoak	Autonomoak	Afiliatuak	Soldatakoak	Autonomoak
	Afiliados	Asalariados	Autonomos	Afiliados	Asalariados	Autonomos
VENTA Y REPARACIÓN DE VEHÍCULOS DE MOTOR Y MOTOCICLETAS	1,3	1,2	1,8	100,0	75,7	24,3
COMERCIO AL POR MAYOR E INTERMEDIARIOS DEL COMERCIO, EXCEPTO DE VEHÍCULOS DE MOTOR Y MOTOCICLETAS	4,1	4,0	4,6	100,0	80,4	19,6
COMERCIO AL POR MENOR, EXCEPTO DE VEHÍCULOS DE MOTOR Y MOTOCICLETAS	8,5	6,8	16,6	100,0	65,9	34,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>13,9</b>	<b>12,0</b>	<b>23,1</b>	<b>100,0</b>	<b>71,1</b>	<b>28,9</b>
<b>TOTAL</b>						
<b>EKONOMIA GUZTIRA</b>						
<b>Total ECONOMÍA</b>	100,0	100,0	100,0	100,0	82,6	17,4

## Txikizkako merkataritzako afiliazioa, lurralde historikoen arabera

	Datu absolutuak / Datos Absolutos			Δ 4T 2020/ 4T 2019		
	Afiliatuak	Soldatakoak	Autonomoak	Afiliatuak	Soldatakoak	Autonomoak
	Afiliados	Asalariados	Autonomos	Afiliados	Asalariados	Autonomos
Araba	11.235	8.699	2.537	-0,2	0,0	-0,8
Bizkaia	46.988	28.512	18.477	1,2	1,7	0,4
Gipuzkoa	24.522	17.305	7.218	-1,7	-1,6	-1,8
<b>Euskal E.A.</b>	<b>82.746</b>	<b>54.515</b>	<b>28.231</b>	<b>0,1</b>	<b>0,3</b>	<b>-0,3</b>
<b>C.A. de Euskadi</b>						
	<b>% bertikalak %verticales</b>			<b>% horizontalak % horizontales</b>		
	Afiliatuak	Soldatakoak	Autonomoak	Afiliatuak	Soldatakoak	Autonomoak
	Afiliados	Asalariados	Autonomos	Afiliados	Asalariados	Autonomos
Araba	13,6	16,0	9,0	100,0	77,4	22,6
Bizkaia	56,8	52,3	65,4	100,0	60,7	39,3
Gipuzkoa	29,6	31,7	25,6	100,0	70,6	29,4
<b>Euskal E.A.</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>65,9</b>	<b>34,1</b>
<b>C.A. de Euskadi</b>						

Informazio iturria: Gizarte Segurantzako datuak, Estatistika Organoak landutakoak. Datuak hilabeteko azken egunari dagozkie.

